

## **LANERAKO FITXA:** **ZER IZAN NAHI DUZU HANDITAN?**



### **Jarduera honekin, zera landuko dugu**

Genero-desberdinkeria.

Errespetua.

GJH: **5.a**, emakumeen aurkako aurreiritziak islatzen dituelako.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\).](#)

### **Iraupena**

Saio bat.

### **Beharko dugun materiala**

*Zer izan nahi duzu handitan?* ipuina edo bideoa.

Zikloak 1, 2, 3

### **Aurretiazko oharra**

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Ipuinak galdera bat du abiapuntu: «Zer izan nahi duzu handitan?». Galdera hori askotan egiten zaie haurrei, eta horretan oinarrituz hausnarketa egin dezakegu, zabaldu samar dagoelako jarduera batzuk gizonentzat diren eta beste batzuk emakumeentzat diren ustea.
- Horrez gain, ipuinak gogorarazten digu historian zehar emakume ugari egon direla gizarteak agindutako mendekotasuna onartzeari uko egin ziotenak.
- Horrekin lotuta, ametsak betetzearen gaia daukagu. Hortik abiatuta, adieraziko diegu oso garrantzitsua dela helburuak lortzeari begira ahalegina egitea, eta, horrez gain, funtsezkoa dela geure buruarengan konfiantza izatea ere.

### **Garapena**

#### **Aurrez egiteko jarduera**

Galdetu ikasleei handitan zer izan nahi duten, eta esan paper puskatxo batean idazteko.

Denek idatzi dutenean, paper guztiak bildu, eta ausaz banatu ikasleei. Ahal dela, inori ez eman berak idatzitakoa.

Gero, honelako galderak egin eta hausnartu:

- Demagun paperean idatzita daukaguen horretan aritu behar duzuela lanean. Gustatzen al zaizue egokitu zaizuen lanbidea? Nahiago al zenukete duela unetxo bat paperean idatzi duzuen lanbidean aritu? Ondo irudituko al litzaizueke aukeratzeko eskubiderik ez izatea?
- Zuen ustez, garrantzitsua al da bakoitzak bere lanbidea aukeratu ahal izatea? Ondo al dago beste batzuek agintzea zein lanbidetan aritu behar dugu? Zergatik?

- Zuen ustez, gertatzen al dira horrelako egoerak?

Irakurri ipuina edo ikusi bideoa.

#### **Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)**

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, galdera batzuk egingo dizkiegu ikasleei, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Galdera hauek egin ditzakegu:

- Zenbat pertsonaia ageri dira ipuinean?
- Gogoratzen al dituzue haien izenak?
- Ze izen du ipuineko protagonistak?
- Irenek irakaslea izan nahi al zuen handitan?
- Iñaki eta Peru poztu egin al ziren Irenek futbolaria izan nahi zuela esan zuenean?
- Neskek eta mutilek ezin al dituzte gauza berak egin?
- Pepok emakume ausartei buruzko informazio pila bat aurkitu zuen Superheroien Akademian. Gogoratzen al duzue emakume haiekoren baten izena?

#### **Hausnar dezagun**

- Zein egoera bidegabe agertu da istorioan? Zergatik gertatu da?
- Zer egin du Irenek Iñaki eta Peru barrez hasi zaizkionean?
- Zuei gertatu al zaizue inoiz halakorik? Noiz?
- Zer gustatu zaizue gehien Irenerengandik?
- Zer ikas dezakegu berarengandik?

Hausnarketez baliatuz, genero-estereotipoen gaian sakondu.

- Zuen ustez, lanbide batzuk gizonentzat dira, eta beste batzuk emakumeentzat?
- Hori ondo al dago? Lanbide batzuk gizonentzat bakarrik izan behar dira eta beste batzuk emakumeentzat bakarrik?
- Zer egiten duzue horrelako egoeren aurrean? Zer egin behar genuke?
- Zuen ustez, ipuinean aipatzen ez bada ere, zein supermaltzur ari da ipuinean jarduten?

## ZER IZAN NAHI DUZU HANDITAN?

Irakasleak idazlan bat egin behar genuela esan zigun. Zehazki, gai honen inguruan:

«Zer izan nahi duzu handitan?»

Handiek askotan egiten zidaten galdera hori, baina inoiz ez nekien zer erantzun:

—Zure adineko mutil guztiek bezala, futbolaria izan nahiko duzu, ezta, Pepo? —galdetzen zidan beti Luisak, nire amonaren bizilagunak.

Tira, jolas-orduan gustura ibiltzen nintzen futbolean, baina ez neukan futbolaria izateko asmorik. Baziren gehiago gustatzen zitzaizkidan beste gauza batzuk. Baina nire lagun Irenek oso garbi zeukan berak futbolaria izan nahi zuela. Zortzi urte zeuzkanetik, eskolako taldean jokatzen zuen, eta estadio erraldoi batean milaka pertsonaren aurrean gol bat sartzea zen bere ametsik handiena.

Baina behin, jolastokian geundela amets hori kontatu zigunean, Iñaki eta Peru barrez hasi zitzaizkion.

—Futbolaria izan nahi duzula? Baina neska zara-eta! Ez duzu zure ametsa inoiz beteko! Futbolean onenak mutilak dira beti. Mundu guztiak daki-eta!

—Hori ez da egia! —esan zuen Irenek. Eta, korrika, alde egin zuen.

Irene, haserre baino gehiago, triste zegoen, askotan entzun behar izaten zuelako futbola ez zela neskentzat.

Orduan, irakasleak agindu zigun idazlana gogoratu nuen:

«Handitan zer izan nahi dugun erantzuteko, neskak ala mutilak garen ikusi behar dugu, ala? Zer dira, ba: lanbide batzuk neskentzat, eta beste batzuk mutilentzat? Non dago idatzita horrela behar duela?».

Arratsaldean, Superheroien Akademiara iritsi nintzenean, gertatutakoaren berri eman nion irakasleari, eta laguntza eskatu nion. Irakasleak esan zidan gauzak asko aldatu direla azken urteotan, baina, oraindik ere, alde handiak daudela gizonen eta emakumeen artean, eta, horregatik, emakumeek, batzuetan, ez dauzkatela gizonen aukera berdinak:

—Pepo, ba al zenekien munduko herrialde askotan neskei ez dietela eskolara joaten uzten, etxeko lanetan aritu behar dutelako eta familia zaintzen geratu behar dutelako? Neska horiei inork ez die erakusten ez idazten, ez irakurtzen. Nolako etorkizuna izango ote dute gaixoe? Hala ere, emakume asko hori aldatzen saiatu dira. Joan Superheroien Artxibora, eta bilatu informazioa. Adibide ugari aurkituko dituzu han.

—Baina Superheroien Artxiboan azken ikasturteko ikasleak bakarrik sar daitezke.

—Lasai. Sartzeko baimena emango dizut. Nire ustez, egiten ari zaren lana oso garrantzitsua da, eta han aurkituko duzun informazioak asko lagunduko dizu.

Irakasleak artxiboan sartzeko kode bat eman zidan, eta jarraibide batzuk ere eman zizkidan.

—Eskerrik asko, andereño! —esan nuen, eta korrika joan nintzen artxibora. Superheroien Artxiboa Akademiako sotoan zegoen. Balio handiko informazioa zegoen han; horregatik zegoen hain ondo babestuta. Han sartu ahal izateko, irakasleak emandako gakoa sakatu behar izan nuen teklatu batean. Pelikuletan bezala! Emozionatuta nengoen, gelako guztien artean neu nintzelako han sartzen lehena.

Ate batzuk zabalduta ziren, igogailu batenak bezalakoak, eta ezetz asmatu zer ikusi nuen! Sabaian zintzilik, pantaila erraldoi bat zegoen, informazioa

bilatzeko, eta inguruan artxibo pila bat zeuden, milaka superheroien fitzez beteta. Leku izugarria zen hura; sinestezina zen han behean halakorik egotea.

Emakume ausart askoren historiak irakurri nituen, ordura arte gizonen bakarrak egin zituzten gauzak egiten hasi zirenenak: emakume zientzialariak, idazleak, politikariak... Asko sufritu zuten haien ametsak bete ahal izateko.

—Aurkitu dut idazlanerako behar nuena! Badaukat erantzuna!

Hurrengo egunean, nire idazlana irakurtzeko arbelera atera nintzenez, oso urduri nengoen. Irakasleak zero patatero jarriko zidala pentsatzen nuen, azken batean idazlanean ez nuelako jarri handitan zer izan nahi nuen.

Irakurtzen hasi nintzen:

—Zer izan nahi duzu handitan? Ba, egia esan, ez dakit...

Irakaslea begira-begira geratu zitzaidan, baina ez zuen ezer esan.

Superheroien artxiboan zer aurkitu nuen kontatu nien. Esan nien neska askok ezin dutela aukeratu handitan zer izan nahi duten, eta emakume batzuek borroka egin behar izan dutela haien ametsak betetzeko, inguruan zailtasunak zeuzkatelako. Eta, amaitzeko, esan nuen:

—Oraindik ez dakit handitan zer izan nahi dudan. Baina badakit garrantzitsuena nire ametsak betetzeko ahalegina egitea dela. Eta, gainera, neskek eta mutilek gauza berberak egin ditzakegula, eta ez daudela nesken ametsak alde batetik eta mutilen ametsak beste alde batetik, zeren ametsak guztionak baitira.

Irakasleak zorionak eman zizkidan, eta esan zidan oso gauza garrantzitsuak esan nituela. Iñakiri eta Peruri begiratu nien: lotsa-lotsa eginda zeuden, burumakur. Ordutik aurrera, ez zioten Ireneri barrerik egin, handitan futbolaria izan nahi zuela esaten zuenean. Irene oso neska ausarta da, benetako superheroi bat, eta ni oso harro nago bere laguna izateaz.

Aizue, lagunok, eta zuen ametsak zein dira?

Gogoan izan benetako superheroiek ez dutela nahi duten guztia lehenengoan lortzen. Baina ez dute amore ematen, eta behin eta berriro egiten dute ahalegina. Horrela, gero eta indartsuagoak izaten dira!